

## DEKRETUA

**IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE**, Idiazabalgo alkate-udalburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

## IKUSIRIK

Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Kultur Departamenduaren 03/2021 lerroa-otsailaren 25eko 02/2020 Alkatetza Dekretu bidez onartua.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 26 atalak xedatutakoaren arabera, udal eskumen propioa da Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak onartu eta kudeatzea lege honen 7. Artikuluan xedatutakoaren arabera "izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunetatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak".

10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, euskararen normalizazioa arautzen du, hau da, euskara gizarte-funtzio guzti-guztiak betetzeko gauza izan dadin beharrezko prozesua abian jartzea.

Diru laguntza horren oinarrien behin betiko onarpenaren iragarkia argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 9an (110. zenbakian).

## AINTZAT HARTURIK

**Eskumena.** Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorraren 10. artikulua honakoa dio:

**"Deialdia onartuko du alkate-udalburuak** eta han bertan sartuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da. Eskaerak aurkezteko epea eta modua deialdian zehaztuko dira".

### Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorra. (GAO::2017/04/25ean argitaratua, 78. zkia).
- Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen otsailaren 25eko 03/2021 Alkatetza Dekretua
- Diru laguntzaren oinarriak (GAO, 2017ko ekainaren 9an)

### Publizitatea

a) Diru laguntzak eman baino lehen, haiek erregulatzeko dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua



hauxe dio: "... diru laguntzak erregulatzeko dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutatzeko oinarrien markoan, Diru laguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo diru laguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez".

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra.18 atalak zera dio: "La publicidad de las subvenciones concedidas por Entidades Locales de menos de 50.000 habitantes podrá realizarse en el tablón de anuncios. Además, cuando se trate de Entidades Locales de más de 5.000 habitantes, en el Diario Oficial correspondiente se publicará un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación, indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro".

Hau guztia kontuan harturik,

#### EBAZTEN DUT:

- **Lehenkoa.** . Euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko diru laguntzak emateko 2024ko deialdia onartzea (1. eranskina)
- **Bigarrena.** 6.000€ko gastua onartzea 1.481.01.335.00 2024 (287) aurrekontu aplikazioari egotzia.
- **Hirugarrena.** Deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea
- **Laugarrena.** Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua xedatutakoari jarraituz.
- **Bosgarrena.** Kontabilitate-unitateari horren berri ematea.

Nire aurrean,

**IDIAZABALGO ALKATE-UDALBURUAK**

Iñaki Alberdi Iparragirre

**IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK**

Garazi Arraibi Larrea

